

HERNANIK kronika

2003 urtea
Martxoak 20
Osteguna
Alea: 723
www.hkronika.com



Bildu Hernanik prentsurreko eman zuen atzo Udaletxeko Areto Nagusian.

BILDU HERNANI PLATAFORMA

“Ezkerreko abertzaleek urteetan egin duten lana bildu nahi dugu, eta norabide berria eman”

■ Plataformak azaldu du “borondate argia” duela Udal Hauteskundeetan aurkezteko ■ Herriko elkartea eta taldeekin elkarrekin lan egitea da Bildu Hernaniren planteamendua ■ Apirilean firma bilketa egingo du.

BILDU Hernani plataformak prentsurreko eman zuen atzo, eta plataforma berraren oinarriak eta aurrera begirako helburu nagusiak azaldu zituzten Agustin Ezpondak eta Nekane Igarri zek. *Bildu Hernanik* azaldu du bere burua hauteskundeetan aurkeztuko duela eta urteetan herrian izan den ezkerreko tradizio abertzalea biltzen saiatuko dela.

Agustin Ezpondak adierazi zuen Bildu Hernani proiektu ilusionantea dela, eta atzetik jende askoren babes duela.

Alderdienean Lege berria dela-eta plataformak hauteskundeetan ateratzeko aukerarik izango duen galdetuta, Ezpondak zalantzak ditu. Bere ustez, legea oso zabala da, eta ez du zehatz argitzen kontinuitate kontzeptua. Gainera, Ezpondak ez du bazz-

tertu legea segun eta zein herritan modu ezberdinean aplikatuko dutenik ere.

Indarrak bildu

Bildu Hernanik otsailaren 21ean egin zuen aurkezpen publikoa jende aurrean eta Nekane Igarri zek irakurritako komunikatuaren esanetan, indarrak biltzea eta norabide batean bideratzea da aurrera egiteko modu bakarra, “Euskal Herri osoak bizi duen salbuespen egoeraren aurrean eta etengabeko era soen aurrean”.

Bildu Hernanik kaleratu duen adierazpenak dio gaurko Hernani ezin liteekela ulertu ezkerreko abertzaleek urteetan egindako lana eta aportazioa kontuan hartu gabe. Horrela, orain arte egindako lana nabarmendu du, bai hirigintzan herriko interesak defenditzen, bai

FIRMA BILKETA

‘*Bildu Hernani*’ apirilean hasiko da plataforma elektoralak osatzeko behar diren firmak biltzen. Plataforma horren botante izan litekeen firma ez ezik, ‘*Bildu Hernani*’ saiatuko da beste sektoreetako babesera ere bilatzen: abertzale eta ezkertiarrek ordezkaritza elektoralak behar duela uste duten sektoreen firmak ere bildu nahi ditu plataformak.

herriko gazteen beharrak aztertu eta konponbideak bilatzen, hezkuntza, erre presaliatu aldeko ekimenean, komertzio txikiaren alde, herriko edadetuenen bizi baldintzak zaintzen eta abar. Aurrera begira ere zer egin asko dagoela-eta, *Bildu Hernanik* esan du aurreko lan hori bildu eta norabide berria eman nahi diola.

Firma bilketa apirilean
Maiatzeko hauteskundeetara begira, *Bildu Hernanik* firma bilketa egingo du apirilean. Firma bilketa, batetik, plataforma elektoralak sortzeko izango da, baina, *Bildu Hernanik* beste sektoreen babesera ere bilatuko du. *Bildu Hernanik* asmoa da ezkerreko abertzaleek beren errepresentazio politikoa izan behar dutela sinisten duten sektoreen babesera ere lortzea. □

Erditzea eta jaiotzeari buruzko hitzaldia

OSASUNARI buruz hitzaldiak izango dira astean zehar Andragoton. Gaur erditza eta jaiotzari buruz hitz egingo du Kristina Aznarrekin. Kristina Aznar ginekologoa, psikoterapeuta Reichiarra eta *Etxean Jaio* taldeko kidea da. Hitzaldia arratsaldeko 20:30etan da. □

ZINE KLUBA

‘La Cuadrilla’ gaur

KULTURA Sailak antolatutako zineklubaren barruan, La cuadrilla filmea botako dute gaur 22:00etan Biterin. □

MAHAI INGURUA BITERIN

‘Hala bazan ez bazan emakumea plazan’

BERDINTASUN sailak antolatuta mahai ingurua dago gaur Biterin. Bost lagunek hitz egingo dute bakoitzak gai batu buruz: feminismoaren historia, hezkuntza aukeraketan gazteek hartzen dituzten rolak, *Emakumeak Hernanin* azterketa, emakumea kontsumoa eta gerra eta gerrako anegdotak. Gaur 20:00etan Biterin. □

AUTODETERMINAZIORAKO BILGUNEAK

Manifestazioa bihar Hernanin


AuB-k mobilizazioak deitu ditu bihar eta etzirako *Euskal Herria aurrera* lemarekin. Bihar manifestazioa izango da Hernanin, 20:00etan plazan eta larunbatean manifestazio nazionala 17:30etan Bilbon. Hernanitik autobusak aterako dira 15:30etan. Txartelak Garinen daude salgai. □

ZINGI-ZANGA
Jatetxea
Eiguren menuak
Asteburuan afaiek
Oilaskoak
eramateko
Florida 54
Tel: 943 33 03 97



Yone boutique
UDABERRI UDĀKO
denboraldia hasi
dugu.
Gustatuko zaizu.
Nagusia 63 (Hernani)
Hipodromo etorb. (Lasarte)

OIALUME ZAR SAGARDOTEGIA
Asteartetik
larunbatera
zabalik.
943 55 29 38
OIALUME AZKOAN



GALARRETA FRONTOIA
GAUR 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTZE JAIALDIA:

- partidua: Iturrealde - Olazar / Larrea - Urrutia
- partidua: Ezkurra - Urretabizkaia II / Zeberio II - Lizaso
- partidua: Bereziartua - Etxabe / Elizalde - Iriarte
- partidua: Sarasua - Lander / Iribarren - Etxeberria II



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

FUTBOLA -GORENGO MAILA

Jon Loranek entrenadore kargua utzi du, emaitza txarrak direla eta

■ Ordezkoa Gorka Eskisabel izango da, iaz Beasaingo 2garren entrenadorea zena ■ Hernani 16garren dijoa 31 punturekin, 10 partiduren faltan.

LEHENGKO asteburuan Pasajes linderaren kontra 8-0 galdu ondoren entrenadore kargua uzteko erabakia hartu du Jon Loranek. Hernanik esperantza haundiarekin hasi zuen aurtengo denboraldia, baina, joko puntuak eta zortea ez diote lagundu eta sailkapeneko 16garren postuan da. Hernanik 28 partidu jokatu ditu orain artekoan: 8 irabazi, 7 bedindu eta 13 galdu ditu.

Gorka Eskisabel

Gorka Eskisabel alegiarak hartu du taldea zulotik ateratzeko erronka. Eskisabel Beasaingo taldeko 2garren entrenatzaile izan zen iaz eta aurren geldirik egon da. Denboraldia bukatzen 10 partidu falta dira eta burua altxa eta kategoriari eustea izango da helburua. Jon Loranek entrenadore kargua utzi arren klubean lanean segiko duela esan du.

Datorren asteburuan etxean jokatuko du Hernanik, eta entrenadore berriarekin lehenengo azterketa zaila gainditu beharko du Elgoibarren kontra. Iaz bigarren egin zuen Elgoibarrek eta aurren ere goiko postuetan dabil. □



Jon Loran partidu bat jarraitzen, bankiloan.

ESKOLA KIROLA



ASTEBURUKO EMAITZAK

Saskibaloi	Taldeak	Emaitzak
Benjamínak 4	Elizako B - Elizako A	3-1
Benjamínak 4	Imaculada - Langile B	1-3
Benjamínak 4	Langile A - Unum ea	1-3
Benjamínak 3	Langile A - Elizako A	1-1
Benjamínak 3	Langile B - Unum ea	1-2
Benjamínak 3	Elizako B - Langile C	3-1
Infantilak	Langile-San Ignacio A	37-30
Futbolsala	Taldeak	Emaitzak
Infantilak	Langile-M. *A uxiliado za	1-5
Futbola		
Alebin neskak	Elizako - Unum ea	11-2
Alebin m utilak	Unum ea B - Langile B	1-10
Alebin m utilak	Unum ea A - Langile A	6-3
Alebin m utilak	Elizako B - Imaculada	4-2
Alebin m utilak	Langile C - Elizako A	8-9
Waterpolo		
Infantilak	Unum ea - Langile	1-1
Kadeteak	Mogelosasi - Langile	0-3

Eskualdeko laurehun eta gehiago umek parte hartu zuten mendi martxan

JOAN den larunbatean umeentzako mendi martxa antolatu zuten Gipuzkoako 4 herritan. Hernanira Tolosaldeko eta Donostialdeko umeak etorri ziren. Mendi martxa umeentzako zen, baina, helduak ere ibili ziren laguntzen eta bidea erakussten, eta 9 kilometro inguruko bidea egin zuten. Irteera goizeko 08:45etan izan zen, lehenengoak 12:00etan iritsi ziren eta azkenak 13:00etan. Guztira 700 lagun inguru izan ziren: 400 eta gehiago umeak eta gainerakoak helduak. Martxa hauak Gipuzkoako Mendi Elkarteak bultzatzen ditu eta Hernaniko ibilbidea eta antolakuntza Mendiriz Mendi elkar-tearen esku gelditu da. □

Mendi martxako bi ume Txurianeko zubia pasatzen.

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarte. Errakontzioa: argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre eta A. Zerai. Egoltsa: Larramendi 11. Tel: 943-330899. Faxa: 943-336306. Eposta: kronika@topaginea.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.

HITZ BITAN

✓ MAHAI TENISA

Hernani-Easok 4-0 galdu zuen. Hernani-Easok 4-0 galdu zuen Herri Txantrearen kontra, Espainiako lehenengo mailan. Hernani-Eason Zuhaitz Irastortza eta Aitor Bereziartuak jokatu zuten, Gorka Gereñurekin batera, eta nafarrek ez zieten ezertarako aukerarik eman. Hernani-Easok dagoenako galdu ditu mailari eusteko aukera guztiak. Bestalde, Liga autonomikoan Hernani-Easok 4-2 irabazi zuen Gure Talde bizkaitarraren kontra, eta liga irabazteko aukera dute herniarrek. Horretaz gain, Cantabrian autonomia arteko torneoak jokatu zen eta Aitor Mitxelenak txapela lortu zuen jubiletan.

✓ BOLA

Ugalde hirugarren, Erregularitatean. Hernanirak geroz eta hobeto ari dira bolako Erregularitate txapelketan. Joxe Ugalde hirugarren postuan jarri da klasifikazioan, aurrenekoit brila bakarrera. Horretaz gain, hamar aurrenekoetan, beste bi hernaniar ere badaude: Burugain 7garren, 4 briletara eta Ibon Miner 10garren, 5 briletara. Joan den asteburuko tiraldian, Ategorrieta, Ibon Miner eta Burugain 3 eta 4garren gelditu ziren hain zuzen ere. Biek 47na brila bota zituzten, txapel-dunak baino bakarra gutxiago. Hurrena, Mutiloan.

✓ BOLEIBOLA

Hernaniko taldeek irabazi egin zuten. Asteburuan emaitza onak izan dira Hernaniko boleibolarentzat. Kadeteetan, Langile-Hernanik 3-0 irabazi zuen Izukaitz Fortuna donostiarren kontra. Ligako azken partidua zen eta Alai Zubimendik zuzentzen duen taldea bigarren postuan gelditu da. Jubiletan, berriz, Zarauzko Lizardiren kontra jokatu zuen Hernanik, eta 0-3 irabazi zuten hernaniarrek.

✓ HIRIGINTZA BATZORDEA

Etxeak Antziolan. Hirigintza batzordea bilduko da gaur Udaletxeen, arratsaldeko 19:00etan. Sei puntu eztabaideatuko dituzte. Puntuetako bi dira Antziolan, Montes larru-lantegia zegoeneko horretan, etxeak egiteko baimen eskaerak. Etxeetatik 14 babes ofizialekoak izango dira eta beste 18 etxeak promozio pribatukoak.

✓ KORRIKA KULTURALA

Asisko Urmenetaren hitzaldia gaur. Korrika 13ren bueltan ekintzak antolatzen ari da AEK. Gaur Asisko Urmeneta iruñar marrazkilariak kale hizkerarekin jolasean hitzaldia emango du. Hitzaldia Biterin izango da arratsaldeko 20:00etan. □

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Gomez Kale Nagusia 14 Tel: 943 554892
- Gauze: Atxa-Orbea Lasarte. Hipodromo 6 Tel: 943 363549

IRAGARKI MERKEAK

Neska bat behar dugu umeak zaintzeko, 8:00etatik 17:00etara. Deitu: 943 55 37 66 (Arratsaldeko 20:00etatik aurrera)

Pertsona bat behar da umeak zaintzeko. Deitu: 943 33 30 56 - 656 73 55 12

Eguneroko menuak serbitzeko neska euskaldun bat nahi genuke, astelehenetik ostiraleera. Hernanir bertan. Deitu: 615 74 17 99.

Emakume batek etxeko lanak egingo lituzke goizetan. (Informe eta erreferentziekin). Deitu: 699 14 92 85

LAGUNTZALEA, agentea edo Justizi-oifiziala. Laster deialdiak. Euskal Herriko Auzitegietan lana. ADÓZek informatzen du: 943 44 45 09

AIREPORTUAN KONTROLATZAILEAK. AENaren deialdiak udaletan. Eskakizuna: Diplomata edo lizenziatua. Erdi mailako ingelera. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

GIDA-ESKOLA IRAKASLEA. Langabeziarik gabeko lanbide baten lana. Diru-sarrera oportua. Presta zaitez. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

BASOZAINA. Euskal Herriko parke eta Natur Babesguneetan lan egiteko. Eskakizuna: Eskola Graduatura. Presta zaitez. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

SUHILTZAILEAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan-baldintza ezin hobea. Betebeharra: Eskola Graduatura. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

GARRAIOLARIA. Garrailari profesional izateko gaitze-titulua lor ezazu ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

ADMINISTRARI laguntzaileak. Laster deialdiak zenbait udaletan. Eskakizuna: Eskola Graduatura. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

UDALTZAINA bertako udaletan lan egiteko. Deialdiak laster. Eskakizuna: Eskola Graduatura. Presta zaitez ADOZ 943 44 45 09

LIBURUTEGI laguntzailea zenbait udaletan. Laster deialdiak. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

ADMINISTRARIAK (teknikoak zein laguntzaileak). Bertako udaletan deialdiak zabalik. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09

GIDARIAK, elektrikariak, kontserjeak, langileak... Bertako udaletan subalterno bezala lan egiteko. ADOZek informatzen du: 943 44 45 09